

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 51,7 milioi euro emango dizkio NUPi aurten, bertako jarduerak aurrera egin dezaten

*Iribas kontseilariak eta Lafuente errektoreak hitzarmen bat sinatu dute, finantzazioa arautzeko eta hainbat urtetarako eredu berriaren prestatzeko prozesuaren aldeko apustua egiteko*

Martes, 24 de junio de 2014

Nafarroako Gobernuak, aurten, 51,7 milioi euro emango dizkio Nafarroako Unibertsitate Publikoari (NUP) bertako irakaskuntzako eta ikerkuntzako jarduerak normaltasunez jarraitzen dutela bermatzeko.

Horretarako, José Iribas Sánchez de Boado Hezkuntza kontseilariak eta Julio Lafuente López NUPeko errektoreak

hitzarmen bat sinatu dute. Horren bidez, Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik datorren finantzazioa arautu da eta aurrera egin da unibertsitatearen hainbat urtetarako finantzazioaren eredu berria prestatzeko prozesuan.

Agirian erabakitakoaren arabera, NUPek 51.794.279 euro jasoko ditu. Horietatik 48.828.114,45 euro irakaskuntzako eta ikerkuntzako lanen finantzazioari dagozkio, eta helburua unibertsitatearen jardun orokorra bermatzea da. Zenbateko horren barruan sartzen dira instalazioen eta ekipamenduen mantentze-lanei, konponketei eta zaintzari lotutako inbertsio-gastuak. Transferentzia hiru hilean behin egingo da, aurrez.

Beste 2.966.164,55 euro irakasleen ordainsari osagarriak finantzatzeko erabiliko dira.

Hitzarmenean jasotakoaren arabera, iaz NUPen hainbat urtetarako finantzazioaren eredu berria zehazteko eratu zen batzorde paritarioa mantenduko da 2014an. Helburua lortzeko, instituzio akademikoak 2015-2016 ikasturtearen hasieran kostu-kontabilitatea ezartzea ahalbidetzen duten kontabilitateko kudeaketa-sistemen diseinuan aurrera egiteko konpromisoa hartu du.

Halaber, Unibertsitateko Informazio Sistema Integratuan jartzen diren datuak eguneratuta izateko konpromisoa hartu du. Datu akademikoak eta giza baliabideei eta aurrekontuei buruzkoak jasotzen dituen informazio



Hitzarmena sinatu den unea

horrek emaitzak lortzearekin lotutako finantzazio-eredu bat ezartzeko beharrezkoak diren adierazleak zehazten eta horien jarraipena egiten lagunduko du.

Amaitzeko, hitzarmena behar bezala aplikatzen dela ziurtatzeko jarraipen-batzorde bat eratuko dela aurreikusi da.